



LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATARA IRISTEKO PENTSIOSAGARRIA

Ez da pentsio berri bat. Eusko Jaurlaritzak autonomia erkidego honetako oinarritzko errentan (gizarte soldatan) egin duen aldaketa bat da. Udaletxeetan eskatzen da, eta foru aldundiek ebatzen dute. Aldaketa honekin, pentsionista bat duten elkarbizitza unitateentzat, bermatutako minimoak lehen baino handiagoak dira. Ordainduko den osagarria unitateak kide kopuruaren arabera bermatua duen minimoaren eta dagoeneko dituen diru sarreraren arteko aldea da.

Horrela, bada, Oinarritzko Errentaren eskakizunak bete behar dira. Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren portzentaje hauek bermatzen dira:

Elkarbizitza unitateko kide kopurua	Pentsionistadun unitatea	Pentsionistarik gabeko unitatea
1	100%	88%
2	125%	113%
3	135%	123%
> = 4	135%	125%

Lanbide arteko Gutxieneko Soldata osoa (%100) hamabi hilabetetan banatuta, 700 euro da.

Hori guztia indarrean dago 2008ko uztailearen 5ez gero. Baina 2009ko urtarrilaren 1etik hasita, pentsiodunek beren ezkontidearekin eta ekonomikoki beren kargu dituzten pertsonekin elkarbizitza unitate independente bat osatu ahal izango dute, nahiz eta etxe berean beste familiako batzuekin bizi.

Ohiko galderak:

- **Bestelako diru sarrerak eta ondarea kontuan hartzen al dira?**

Bai. Oinarritzko errentak gutxieneko diru sarrera batzuk bermatzen ditu; horregatik, pentsioari beste diru sarrera guztiak gehitzen zaizkio. Ondareak, berriz, ez du izan behar elkarbizitza unitate horri dagokion urteko oinarritzko errenta halako lau baino handiagoa. Ohiko etxebizitza ez da kontuan hartzen (aparteko balio handia dutenean besterik).

- **Eskatu egin behar al da?**

Oinarritzko errenta lehendik jasotzen zutenei automatikoki gehitu zitzaizen zenbatekoa uztailetik bertatik hasita. Eskubidea duten beste guztiak eskatu egin behar dute. Adibidez, bakarrik bizi diren pentsiodunek edo haien ezkontideek 2009ko urtarrila arte itxoin gabe eska dezakete oinarritzko errenta berria, pertsona bakarra direnek urtean gehienez 8.400 euroko diru sarrerak badituzte, eta bi lagun direnek urtean gehienez 10.500 euroko sarrerak badituzte.

- **Egoitzetan bizi diren pentsiodunek?**

Ez dute oinarritzko errenta jasotzeko eskubiderik, beraz eduki ditzaketen diru sarrerak ez zaizkie osatuko.

- **Ezkontide biak pentsiodunak direnean?**

Elkarbizitza unitate bakarra osatuko dute beti; hortaz, ez zaie ziurtatzen lanbide arteko gutxieneko soldata bana. Bi lagun badira, goian aipatu bezala, lanbide arteko gutxieneko soldataren %125 bermatzen zaie (10.500 euro urtean).